

LOMCE-REN INGURUKO kontrol mozioa

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko azaroaren 16ko Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean landutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2011-2015 legealdian talde politiko guztiok behin baino gehiagotan Lomce-ren inguruko eztabaidetan parte hartu eta herritarrak sentsibilizatzeko aukera izan genuen.

Udalbatzak berak salatu zuen Lomce-kin ratioak gehiegizko igoera zuela, hezkuntza-ibilbidea errebalida eta oztopo lasterketa baztertzaila gisa planteatzen dela, sexuaren arabera bereizketa eta hura diruz laguntzea salatu zituen, hezkuntzari trataera merkantilista ematea ere bai, ikastetxeen sailkatze publikoa baremo interesatuen arabera egitea, ikastetxe publikoetan kudeaketa pribatuaren erdua ezartzea, boterea pertsona bakar baten esku jartzea -ikastetxeko gainerako kideak bazterrean utzita-, curriculuma zentralizatzea eta berdintzea, curriculuma erabakitzeko Euskal Herriaren ahalmena are gehiago murriztea, euskara gutxiatea eta euskarari ardatz izaera kentzea edota erlijio katolikoa inposatzea gizarte laiko eta plural bati.

Hori guztia dela-eta, behin baino gehiagotan, Donostiako Udalbatza Lomce legearen aurka agertu da eta Espainiako Gobernuari eskatu dio proiektua berehala kentzea. Baita exijitu erkidego honek hezkuntzaren alorrean dituen eskumenak errespetatu daitezela eta behin betiko errespetatu dadila. Modu berean, euskal herritarren hezkuntza eta hezkuntza eskubideak defendatze aldera, Donostiako Udalbatzak gogor eskatu zion Eusko Jaurlaritzari Lomce-ren proiektua berehala baztertzeko eta euskal hezkuntza sistema bermatzeko.

Gaur egun, hezkuntza eredu atzerakoi, merkantilista eta inposatuarekin jarraitzen dugu. Ez zaigu gustatzen eta ez ditu gure beharrak asetzen eta bat gatoz, gure herriak, Euskal Herriak, Hezkuntza Sistema Propioa behar eta nahi duela esaten dugunean: herritik eta herriarentzat.

Gaur egungo eredu arrotza gainditu eta gure hezkuntzaren inguruko erabakiak guk geuk hartu nahi ditugu, gure ikastetxe eta herrietatik eta hezkuntza eredia egunez egun eraikitzen jarraitu.

Hezkuntza sistemaren aplikazioa Eusko Jaurlaritzari dagokio eta hori ez du inork eztabaidatzen. Ez momentuz. Halaber, hiri honetako haurrak eta beren familiak badira gure eskumena. Baina bereziki gure ardura dira. Beren heziketa integralaren aldeko ardura asko du Udalak. Hiri hezitzaileen baloreak bertan jasotzen dira eta gaur egungo Udal Gobernuak hori horrela dela ez bereganatzea gaizki ulertua izatea espero dugu. Hiritar ororen kalitatezko garapen integralaren alde lan egitea ezinbestekoa baita.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du:

- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio hiriko eskoletan LOMCEren inplementazioak dakartzan ondorioen inguruko txostena egin dezala, eta hiriko eskola, guraso elkarte, hezkuntza eragile eta talde politikoei aurkeztearekin batera, hezkuntza komunitateari eskaini diezaiola euskarri nahiko LOMCEren aplikazioei aurre egin ahal izateko.
- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Hiriko Curriculum lantzeko, euskalduntze osoa bermatuko duen hizkuntz proiektuak garatzeko,

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

hezkidetzan hezteko urratsak emateko eta jantokiak elikadura burujabetzaren filosofian garatu daitezen baliabideak eskaintzeko.

- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio Hezkuntza Plataformen Topaguneak bultzatzen dituen gidetan, formakuntzetan, foroetan eta dinamiketan parte hartzea eta bideratzen dituen deialdietara atxikitzea.

Donostian, 2015eko azaroaren 20an

Naiara Sampedro Perez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia